

LABek EAEko gizarte ekimeneko ikastxeetako Kristau Eskola eta Aice-Izea patronalei greba bukaerako akordioa betetzea exijitu die

Patronalek erabaki dute adostuta zegoen ordu lektiboen jaitsiera ere ez aplikatzea.

Aurreko astean, 34. mahai negoziatzailea egin ostean, Kristau Eskolak eta AICE-IZEAk EAEko gizarte ekimeneko ikastetxetako patronalek adierazi zuten 2025-2026 ikasturterako eskola ordurik ez dutela jaitsiko. Honela, sektoreko langileek 14 greba egun egin ondoren, 2024ko otsailaren 5ean greba bukaerarako akordioan adostu eta lortutakoa bertan behera utzi dute.

16 hilabete pasatu dira eta 15 mahai negoziatzaile egin dira greben amaiera ekarri zuen akordioa sinatu zenetik eta patronalak blokeoan gotortu dira, eta ez dira ari sinatutako betetzea. Horren eraksugarri, ez dutela gauzatuko datorren ikasturterako adostuta zegoen ordu lektiboen murrizketa.

Eskola orduen murrizketak bere biziko garrantzia du, hala nola lan kargak jaisteko, ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko, enplegua sortzeko, lanpostuak ez suntsitzeko, etab.

Ikasturtea amaitzen ari da eta lanpostuak ez galtzeko birkokapen prozeduraren aktak itxi berri edota ixten ari diren honetan, LABek ez du onartzen neurri hori ez dela martxan jarriko hurrengo ikasturterako.

Hori dela eta, LABek, ez betetzeen aurrean, bai bide juridikoa, zein ekintza sindikala aktibatu ditu.